

PRESTAKUNTZA

Topagunearen barnean, Prestakuntza arloari 2003-2004 ikasturtean heldu genion. Bi lan ildo garbi finkatu ziren:

1. Topagunean federatuta dauden elkarteetako eragileei prestakuntza iraunkorra eskaintzea
2. Euskara elkarteen arlo estrategiko ezberdinen lan-ildoak buruzko hausnarketa bultzatzea.

Ordutik 3 lan-mota gauzatu ditu arlo honek: ikastaroak, mintegiak eta jardunaldiak antolatzea, hain justu.

Arlo hau hartu-emanekoa izan dadin egin dugu bereziki lana. Hau da, elkarteen formazio beharrei erantzutekoa. Horretarako, arlo honek, elkarlanean jarduten du uneoro Topagunearean sail ezberdinetako sustatzaileekin eta baita federatutako elkarteekin ere.

2002-2003 ikasturtean 9 ikastaro burutu ziren eta 90 pertsona inguruk hartu zuen parte berautan. 25 elkartek eman zuen izena planean.

2003-2004 ikasturtean, berriz, 18 ikastaro antolatu dira (4 gauzatzeke daude oraindik) eta 32 elkartetako 176 pertsonak hartu du parte guztira.

Ikastaro hauetan, bestalde, 42 aditu ibili dira enaile lanetan.

Bi ikasturte hauetan hartu dugun martxari jarraipena eman eta guztion arteko hartu-emana bultzatzeko kontakturako bi bide jarri ditugu:

Posta elektronikoa:
prestakuntza@topagunea.com
Telefono zenbakia: 94 621 58 05

Zenbat buru...

NOLAKO ZURA (IZAERA) HALAKO EZPALA (PRESTAKUNTZA)



Aurreko batean, gurean prestakuntzaz ari ginela. Honako kezkek atera ziren: egokia ote den Topaguneak eskaintzen duena, nahikoa egiten ote dugun, arlo teknikora ez ote den gehiegi bideratu... Garbi dagoe-na da edozein talde edo elkartetan lehenago edo beranduago jabetzen garela gure jardunbidea hobetzeko, zabaltzeko eta eraginkorragoa izateko prestakuntza ezinbesteko elementua dela. Baina honetaz jabetuta, hurrengo galdera izango da zer nolako prestakuntza behar edo nahi dugun. Eta hona dator zuraren eta ezpalaren jokoa. Hau da, lehenengo urratsa izango da argitzea zergatik eta zertarako nahi dugun, edo beste modu baten esanda, garbi izan beharko dugu zein den gure izaera (zer gara?) eta zer lortu nahi dugun eta zeintzuk diren gure norabide eta helburuak (nora joan nahi dugu? zein da gure ametsa edo utopia?).

Gogoeta-prozesu hau, berez oso formatiboa da, eta elkarte guztiok noizean behin egin beharko genuke.

Are gehiago kontuan izanda gure ezaugarriak: askotan partaideak aldatzen direla, teknikari berri asko sartu direla, talde askotan gorabehera handiak izaten direla (krisialdiak, nekeak...). Hori bai, prozesua zaindu behar dugu benetan aberatsa, komunikatiboa (denon ahotsak entzunda eta kontuan hartuta) eta eraldatzailea (gure ingurunea eta gure herriko hizkuntza-egoera aldatu eta hobetzeko) izatea nahi badugu. Prestakuntza-bide hau elkarteren barrukoa eta elkarteen artekoa izan beharko litzateke.

Hausnarketa-rako beste helduleku polita izan daiteke gure praktika aztertuz gogoeta egitea, denon arteko ezagutza eta



teoria sakonduz eta sortuz. Lan honetan lagungarriak izan daitezke aldiro-aldiari soziolinguistikaren abanikoak eskaintzen duen teorizazio eta eguneratzea, beti tokian tokiko errealitatea kontuan hartuz. Jakina, orain arte egin den eguneroko lanerako prestakuntza teknikoaren eskaintzarekin jarraitu beharko genuke, baina bestelako prestakuntzari ere bidea zabaltu

KAFE ANTZOKIA - ESPALLOIA - ELGETA

Espaloia kafe antzokia: kultura era duinean

Apustu ekonomikoaz gain (ia 175.000 euro) estrategikoa ere bada Espaloia kafe antzokia Elgetako Goibeko kultura elkartearendako. Helburua da kultura ekitaldiak era duinean eskaintzea. Areto honek ziurtatuko du herritar guztiendako plaza berri bat, kulturarendako leku zaindua adin guztientzat. Gura da eskaintza zabaldu batez ere Debabarrenera eta Debagoienara, baita Bizkaia aldera zein Euskal Herrira.

Kultura izango da helburu nagusia (hitzaldiak, erakusketak, kontzertuak, antzerkiak, zine-kluba...) Enpresen bilerentzako leku aproposa ere eskaintzen da Interneteko konexioekin eta irudi proiektio aukerekin. Ezin ahaztu eguneko menuak ere emango direla; izan ere, sukaldea eta jantokia ditu 70 lagunendako.

Egin diren lanak

Udalak zeukan lokal batean egin dira lanak. Estructura, beraz, egina zegoen. Orain, egokitu dira jantokia,



Hau da Espaloia kafe antzokiaren logotipoa

sukaldea, taberna, kafe lekua eta batez ere agertokia. Argiztapen profesionala dago aretoan egin den kamara beltzean. Proiektioak egiteko pantaila handia ere bada go aretoan.

Soinua

Bartzelonako aditu talde batekin bideratu da aretoko soinua. Lehenengo, lokalaren neurriak, oihartzun lekuak eta abar neurtu ziren. Froga horiek emandakolari jarraiki aukeratu da soinu ekipoa eta bideratu dira lan batzuk. Esaterako, horma guztian material berezi bat jartzea eta 800 egur listoitik gora sartzea areto guztian zehar. Emaitza: soinu ona.

Orain, poliki-poliki hasiko gara ekintzak antolatzen.

BEHIN-BEHINEKO ETENA ASTEONEN ARGITALPENEAN

Honezkero jakingo duzuen moduan, Herri Komunikabideak Kooperatiba Elkarteak (Asteonen enpresa argitaratzaileak, alegia) telebista-astekariaren ekoizpenean behin-behineko etena egitea erabaki du. Ez da erabaki erraza izan; ustekabeko jazoera bat izan da kooperatiba erabaki hori hartzera bultzatu duen arrazoi nagusia. Izan ere, aurreikusitako diru-laguntza publikoak ez jasotzeko arrisku handia dagoela adierazi zaie oraintsu kooperatiba honetako ordezkariari.

Eusko Jaurlaritzako aurrekontuen luzapena dela-eta Asteonek beharrezko dituen diru-laguntzak ezin izango dituztela bermatu: hori izan da hain zuzen Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako arduradunek adierazitakoa.

Horren ondorioz, Herri Komunikabideak Kooperatiba



Elkarteak plazaratu duen oharrak dioenaren arabera, "astekariaren egoera ekonomiko erreala argitu artean ekoizpena halabeharrez etetea erabaki da eta datozen hilabeteetan diru-laguntzen ebazpena ezagutu orduko erabakiko da astekariaren etorkizuna." Honako elkarte hauek osatzen dute Herri Komunikabideak Kooperatiba Elkarteak: Bierrik, Elgoibarko Izarra, Durangaldeko

Gazte Kultur Zirkuituak

Asteburuetan.com programan kokaturiko Gazte Kultur Zirkuituak ekimenak urteko azken lau hilabeteetan ere jarraituko du. Horretarako, 38 tailer eta ikastaro inguruko eskaintza zabalduko da ekainaren 14an Topaguneko kide diren elkarte guztietara eta erakunde ezberdinetara, azken hauei baldintza ezberdinak eskainita. Guztira 45 ikastaro inguru egiteko aukera dago eta uztailearen 19a da eskaerak egiteko azken eguna.



Haur eta Gazte Sailaren estrategia definitzen

Haur eta Gazte Batzordeak Sailaren diskurtsoa eta estrategia lantzen jardun du azken hilabeteetan. Euskara elkarteetan haur eta gazte sailen norabidea definitzeko erabilgarria izan daitekeen strategiaren zirriborroa landu du Batzordeak. Aipatutako zirriborroa elkarteetara zabalduko da ekarpenak jasotzeko. Ondoren, uztailean, Sailaren diskurtsoa eta estrategia definitzeko antolatuko den mintegian parte hartzeko gonbidapena zabalduko da.

Gai honen inguruko zalantzarik edo interesik edukiz gero, edo landu den strategiaren zirriborroa eskuratzeko, Topagunera jo eta Gazte Sailarekin harremanetan jarri.

Euroituna hizpide

Europako Kontseiluko Hizkuntza Gutxituen Itunaren Jarraipenerako Batzordeko adituak gure artean izan dira egunotan, Espainiak, Euroitunaren sinatzaile den aldetik, itun hori ganoraz betetzen ote duen egiaztatu guran. Euskal gizarteko hainbat arlotako eragileekin elkartu dira, eta tartean Topaguneko arduradunekin ere bai. Estreinako bilera maiatzaren 25ean izan zen Iruñean, eta bertan, besteak beste, Topaguneko Nafarroako ordezkarien iritziak entzun zituzten.

Biharamunean hainbat hedabidetako arduradunekin bildu ziren Bilbon. Topaguneko ordezkariak jakinarazi zenez, izan badira komunikabideetan euskararen erabilera sustatzeko laguntzak, baina lekuan lekuko agintea dutenen borondatearen arabera ematen dira, ez dagoelako hizkuntza-

Topagunearen webgunea, dagoeneko sarean

Goitik behera eraberriturik, sarean edonork bisitatzeko moduan da dagoeneko Topagunearen webgunea. www.topagunea.org helbidera sartuta bisita daiteke atari dinamikoa; eta dinamikoa da, hain justu, Topaguneko elkarte guztiek lagun dezaketelako egitasmo hau sendotzen, elkarte guztien gunea baita. Elkarren berri izatea eta elkarte bakoitzaren albisteak lau haizetara zabaltzea ahalbidetzen digun tresna da, funtsean. Aplikazioa, beraz, garatuta dago, sarean dago jada. Orain, ordea, hezurdura hori haragiz hornitu behar dugu;hots, elkarteek euren hedabidea, euren berriak eta euren agenda bertan txertatzea falta dela ataria benetan tresna bizia izan dadin.

IRITSI ZAIGU UDA!

Udako oporretan euskaraz gozatzeko hamaika aukera eskaintzen dituzte euskara elkarteetako aisialdi taldeek. Duda barik erakargarrienak, dagoeneko klasiko bihurtu diren UDA-LEKUAk dira.

2004ko uztail eta abuztuan zehar hainbat euskara elkartek antolatuta udalekuetako modalitate ezberdinetan (udaleku itxi, udaleku ireki, kanpaldi eta bidaiak) parte hartzeko aukera ugaria izango dute lurralde ezberdinetako hiru eta hamazortzi urte bitarteko haur eta gazteek. Zazpi eta

hamabost egun bitarteko makina bat txanda antolatu eta burutuko dira.

Udalekuak aisialdian zentratutako proiektu hezitzailea dira. Elementu ludikoak ematen dituen aukerak aprobetxatzen dira euskararen erabilera sustatzeko. Euskara elkarteetako udalekuen eskaintzak hainbat berezitasun dauzka. Besteak beste, talde txikietan burutzen den jarduerara da, elementu hezitzailea hobeto landu ahal izateko eta lortu nahi diren hizkuntza-helburuak hobeto

jorratzeko. Horrez gain, udako eskaintza puntuala den arren, urtean zehar burutzen diren bestelako ekintzen bidez jarraipena emateko saiakera egiten da. Udalekuetako programazioetan, bestalde, euskal kultura sustatzeko ahalegina egiten da, elementu tradizionalak eta berritzaileak uztartuta. Aipatu beharra dago, era berean, udalekuetan diharduten hain-



2003ko udaleku irekiak

bat zuzendari, koordinatzaile eta begiraleren ahalegin berezia.

Topaguneko bazkide diren ondoko elkarteek eskaintzen dituzte udalekuak: Hitzaro (Ordizia), Elgoibarko Izarra, Noaua! (Usurbil), Pil-pilean (Soraluze), Ttakun (Lasarte-Oria), Berbaizu (Deustua), Berbaro (Durango), Euskarabila (Basauri), Bizarra Lepoan (Getxo), Irun Iruten (Irun), Jardun (Bergara), Lau Haizetara (Orereta), Txatxilipurdi (Arrasate),

Datozenak...

Kontuan har itzazue hitzordu hauek zuen agenda osatzerako-

- Euskal Herria Zuzenean jaialdia aurten Zuberoako Idauze-Mendin egingo da (Mauletik 10 minutura), uztailaren 2, 3 eta 4an.
- Ekainaren 11n eta 18an (15.30etik 18.30era), mendebaldeko euskalkiari buruzko mintegia Abadiñoako kultur etxean eta Xabier Amurizak gidaturik.
- Gazte Kultur Zirkuituak: ekainaren 14tik eta uztailaren 19ra bitartean zabalik egongo da iraila eta abendua bitartean burutu nahi diren ikastaroak eskatzeko epea.
- Iraila eta urte amaiera bitarteko Kultur Errotaren eskaerak egiteko azken eguna: ekainak 21. Aurretiaz, 75 ikuskizun inguru jasotzen dituen zerrenda bidaliko da ekainaren lehen elkarteguztietara.
- Ekain eta uztail guztian zehar eta Topagunean federaturiko elkarte guztietan, Topagunearen Interneteko atari dinamikoari buruzko ikastaroa.
- Abuztura bitarteko ikastaroak:
Ekaina:
 - 9-16: Euskara Elkarten komunikazioa (Andoain)
 - 14-21 eta uztailak 5: Finantziario ikastaroa (Abadiñoako kultur etxean)
- Uztaila:**